

1. Eranskina. Unitate didaktikoa

PRETEST

Helburuak:

- Hausnarketa bultzatzea.
- Ikasleen autoezagutza ez akademikoaz jabetzea.
- Autoezagutza ez akademiko baxua duten ikasleak identifikatzea.
- Idatziz komunikatzen ikastea.

Eguna: 2015eko otsailak 27.

Denbora eta espazioa: 45 minutu, ikasgelan.

Taldekatzeta: banaka.

Materiala: fitxak.

1. JARDUERA: BONGOREN IPUINA

Helburuak:

- Umeek haien burua baloratzen eta maitatzen ikastea.
- Autoezagutza fisiko on baten garapena sustatzea.
- Desberdintasun fisikoak baloratzea eta horiek aberasgarriak direla ulertzea.
- IKT-en erabilera bultzatzea.
- Hausnarketa jarrera sustatzea.
- Ahoz zein idatziz komunikatzen ikastea.

Edukiak:

- Autoezagutza fisikoa.
- Taldeko partaidekiko errespetua.
- Iritzien trukaketa.
- Aniztasuna.
- Ahozko eta idatzizko komunikazioa.

Eguna: 2015eko martxoak 6.

Denbora eta espazioa: 45 minutu, ikasgelan.

Taldekatzea: talde handian eta banaka.

Materiala: ipuina, ipuinaren irudiak eta hausnartzeko galderen fitxa.

Ebaluazioa:

- Gogoeta jarrera izaten dute.
- Parte hartzen dute.
- Hitz egiteko txandak eta besteen iritzia errespetatzen dituzte.
- Ipuinaren esanahia ulertzen dute.
- Aniztasunaren garrantziaz ohartzen dira.

2. JARDUERA: IPUINEKO ANIMALIAK MARGOTU

Helburuak:

- Aniztasuna baloratzea eta aberasgarria dela ohartaraztea.
- Irudimena eta sormena bultzatzea.

Edukiak:

- Autoezagutza fisikoa.
- Aniztasuna.

Eguna: 2015eko martxoak 6.

Denbora eta espazioa: ordu bete bat eta 30 minutu, ikasgelan.

Taldekatzea: talde handian eta banaka.

Materiala: konfeta, margoen birrinak, zulagailuen bidez sortutako papera, kola, brillantina, kartoizko kutxak eta paperak.

Ebaluazioa:

- Materialak konpartitzen dituzte.
- Bakoitzak bere irudia sortzen du.
- Aniztasunaren garrantziaz ohartzen dira.
- Besteen irudiak errespetatzen eta baloratzen dituzte.

3. JARDUERA: BAKOITZAREN ALTXORRA

Helburuak:

- Umeek haien burua baloratzen eta maitatzen ikastea.
- Autoezagutza fisiko eta emozional onen garapena sustatzea.
- Desberdintasun fisikoak eta psikikoak aberasgarriak direla ulertzea.
- Umeek haien trebetasun positiboak eta negatiboak ezagutzea eta baloratzea.

Edukiak:

- Autoezagutza fisiko eta emozionala.
- Aniztasuna.
- Idatzizko komunikazioa.

Eguna: 2015eko martxoak 10.

Denbora eta espazioa: ordu bete bat eta 15 minutu, ikasgelan.

Taldekatzea: banaka.

Materiala: altxor kutxen irudiak, papertxoak, artaziak, koloreak eta margoak.

Ebaluazioa:

- Gogoeta jarrera izaten dute.
- Azalpenak arretaz entzuten dituzte.
- Besteen lanak errespetatzen dituzte.

4. JARDUERA: NOR NAIZ NI?

Helburuak:

- Norberak bere burua ezagutzea.
- Umeek haien burua baloratzen eta maitatzen ikastea.
- Autoezagutza fisiko eta emozional onen garapena sustatzea.
- Umeek haien trebetasun positiboak eta negatiboak ezagutzea eta baloratzea.
- Gogoeta jarrera izatea.
- IKT-en erabilera bultzatzea.
- Idatziz komunikatzen ikastea.

Edukiak:

- Autoezagutza fisiko eta emozionala.
- Aniztasuna.
- Idatzizko komunikazioa.

Eguna: 2015eko martxoak 12.

Denbora eta espazioa: ordu bete bat eta 10 minutu, ikasgelan.

Taldekatzea: banaka.

Materiala: deskribapenak eta marrazkiak egiteko paperak, arkatzak, margoak eta nik prestatutako bi adibideak.

Ebaluazioa:

- Gogoeta jarrera izaten dute.

5. JARDUERA: GURE KLASEKO ALTXORRA

Helburuak:

- Taldeko partaide sentitzea.
- Gogoeta jarrera izatea.
- Besteen iritziak eta hitz egiteko txandak errespetatzea.
- Ikaskideengandik baloratuta eta maitatuta sentitzea.
- Umeek haien burua baloratzen eta maitatzen ikastea.
- Autoezagutza sozial on baten garapena sustatzea.

Edukiak:

- Autoezagutza soziala.
- Aniztasuna.
- Besteekiko errespetua eta iritzien trukaketa.
- Idatzizko eta ahozko komunikazioa.

Eguna: 2015eko martxoak 16.

Denbora eta espazioa: ordu bete bat, ikasgelan.

Taldekatzea: taldeka.

Materiala: altxor kutxa, kolorezko paperak, txiklea, arkatzak eta bi kartulina.

Ebaluazioa:

- Gogoeta jarrera izaten dute.
- Hitz egiteko txandak eta besteen iritziak errespetatzen dituzte.
- Beste ikaskideei buruzko gauza onak idazten dituzte.

6. JARDUERA: EGUZKI-LOREA

Helburuak:

- Taldeko partaide sentitzea.
- Umeek haien burua baloratzen eta maitatzen ikastea.
- Autoezagutza sozial on baten garapena sustatzea.
- Gogoeta jarrera izatea.
- Besteen iritziak eta hitz egiteko txandak errespetatzea.
- Ahoz komunikatzen ikastea.

Edukiak:

- Autoezagutza soziala.
- Aniztasuna.
- Besteekiko errespetua eta iritzien trukaketa.
- Ahozko komunikazioa.

Eguna: 2015eko martxoak 23.

Denbora eta espazioa: ordu bete bat eta 15 minutu, ikasgelan.

Taldekatzea: banaka.

Materiala: kartulina zuriak, kartulina marroia, txiklea, margoak eta artaziak.

Ebaluazioa:

- Gogoeta jarrera izaten dute.
- Hitz egiteko txandak eta besteen iritziak errespetatzen dituzte.

POSTEST

Helburuak:

- Hausnarketa bultzatzea.
- Idatziz komunikatzen ikastea.
- Ikasleen autoezagutza ez akademikoaz jabetzea.
- Hasierako inkestaren emaitzak eta amaierakoak alderatzea.
- Hobekuntzak suertatu diren ala ez ziurtatzea.

Eguna: 2015eko martxoak 27.

Denbora eta espazioa: 45 minutu, ikasgelan.

Taldekatzea: banaka.

Materiala: fitxak.

2. Eranskina. Behaketa-fitxaren eredu.

1. JARDUERA: BONGOREN IPUINA

IKASLEAK	Gogoeta jarrera	Partaidetza	Hitz egiteko txandak eta besteen iritziak errespetatu	Ipuinaren esanahia ulertu	Aniztasunaren garrantziaz ohartu
1. Ikaslea					
2. Ikaslea					
3. Ikaslea					
4. Ikaslea					
5. Ikaslea					
6. Ikaslea					
7. Ikaslea					
8. Ikaslea					
9. Ikaslea					
10. Ikaslea					
11. Ikaslea					
12. Ikaslea					
13. Ikaslea					
14. Ikaslea					
15. Ikaslea					
16. Ikaslea					
17. Ikaslea					
18. Ikaslea					
19. Ikaslea					
20. Ikaslea					
21. Ikaslea					
22. Ikaslea					

3. Eranskina. Pretest/Postest

1) Zeintzuk dira zure gorputzetik gehien gustatzen zaizkizun atalak?

2) Zer da zure gorputzetik aldatuko zenukeena?

3) Zu nolakoa zara? Azpimarratu deskribatzen zaituzten hitzak:

-Dibertigarria

-Aspergarria

-Zintzoa

-Bihurria

-Azkarra

-Alferra

-Lasaia

-Urduria

-Ona

-Gaiztoa

-Ederra

-Itsusia

-Alaia

-Tristea

4) Esan ondo egiten duzun gauza bat.

5) Esan hain ondo egiten EZ duzun gauza bat.

6) Zer da zuri buruz gehien gustatzen zaizuna?

7) Klasean lan egiteko, noren ondoan esertzea gustatuko litzaizuke?

Zergatik aukeratu duzu pertsona hori?

8) Klasean, zer nahiago duzu: bakarka lan egitea edo taldeka?

Zergatik nahiago duzu hori?

9) Patioan, zer nahiago duzu: bakarrik jolastea edo besteekin?

Zergatik aukeratu duzu hori?

10) Nire ikaskide batzuek pentsatzen dute ni naizela ...

11) Pentsatzen dut ni naizela ...

12) Pentsatzen dut nire irakaslea (BIHOTZA) dela ...

13) Pentsatzen dut nire irakaslea (MARIA) dela ...